



206/2016, maiatzaren 18koa, EBAZPENA
DEBABARRENA ERAKUNDE SANITARIO
INTEGRATUKO ZUZENDARI
GERENTEARENA, ALDI BATERAKO ETA
BEHIN BETIKO BARNE MUGIKORTASUNEKO
DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA,
DEBABARRENA ESIin LANPOSTU
BETETZEKO.

2015eko ekainaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2015eko ekainaren 10eko akordioa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarena. Akordioak onesten ditu, Ente Publikoaren Zerbitzu-erakundeetan, lanpostuak aldi baterako edo behin betiko barne mugikortasunaren bidez hornitzeko irizpide orokorrak.

Langileak haien lanpostura ondo egokitzeko, langileei lanpostuaz aldatzeko aukerak sortzen dien estimulua eskaintzeko, eta/edo lan-baldintzak hobetzeko, langile finkoen aldi baterako eta behin betiko barne mugikortasuneko deialdia egiten da, gardentasuneko eta berdintasuneko irizpideen pean.

Zerbitzua behar bezala emateko, beharrezkoa denez zerbitzu-erakunde honetan dauden lanpostu huts batzuk hornitzea, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren (Osakidetzaren Estatutuak ezartzen dituena) 15. artikuluan pertsonal-gaiei buruz jasotzen den eskuordetzeaz baliaturik,

EBAZTEN DUT:

Aldi baterako eta behin betiko barne mugikortasunaren deialdi publikoa egitea, I. eranskinean zerrendatu diren lanpostuak kategoría bereko Debabarrena ESiko langile finkoekin hornitzeko. Era beren, II. eranskinean zehaztutako lanpostuak hornitzeko zerrenda ireki eta iraunkorrak egiteko deialdia ere egiten da.

DEIALDIAREN OINARRIAK

1-MODALITATEA

1.1-BEHIN BETIKOA

Behin betiko barne mugikortasunak lanpostu baten destino-aldaketa dakar, behin betiko izaerarekin. Borondatezko izaera izango du eta, beti, interesatuak berak eskatu beharko du.

RESOLUCIÓN 206/2016, 18 mayo, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA OSI DEBABARRENA POR LA QUE SE PUBLICA CONVOCATORIA DE MOVILIDAD INTERNA DEFINITIVA y TEMPORAL PARA LA COBERTURA DE PUESTOS DE LA OSI.

Con fecha de 23 de junio de 2015 se publicó en el Boletín oficial del País Vasco el Acuerdo de 10 de junio 2015, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueban los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna, temporal y definitiva, en el conjunto de las organizaciones de servicios del Ente Público

Con objeto de lograr la óptima adecuación del personal a su puesto de trabajo, ofrecer a los trabajadores el estímulo que provoca la posibilidad de cambiar de puesto y/o mejorar las condiciones de trabajo, se realiza la presente convocatoria de movilidad horizontal definitiva y temporal del personal fijo, bajo los principios de transparencia y equidad en su asignación.

Estimándose necesario para la correcta prestación del servicio la provisión de diversos puestos vacantes existentes en esta Organización de Servicios, y de conformidad con la atribución de competencias en materia de personal recogida en el artículo 15 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales el Ente Público Osakidetza-SVS,

RESUELVO:

Efectuar convocatoria pública de movilidad interna definitiva y temporal, para la provisión de determinados puestos de trabajo dentro de un mismo puesto funcional en la OSI Debabarrena, relacionados en el Anexo I, así como, para la elaboración de las listas abiertas y permanentes para los puestos funcionales de la OSI Debabarrena relacionados en el Anexo II.

BASES DE LA CONVOCATORIA

1-MODALIDAD

1.1-DEFINITIVA

La movilidad Interna Definitiva supone el cambio de destino de un puesto a otro con carácter permanente. Será de carácter voluntario y su solicitud debe ser siempre a instancias del interesado





Behin betiko barne mugikortasuneko sistemaren bidez, hurrengo lanpostuak bete ahal izango dira:

- Deialdi bakoitzean zehazten diren lanpostu hutsak
- Sortzen diren lanpostu berriak

Dagokion batzordean zehaztutako osasun egokitzapenak egiteko erreserbatzen diren lanpostuak salbuetsiko dira.

Eskaintza honen aurretik, hala badagokio, erakunde bakoitzeko unitateetan eta zerbitzuetan egokiak diren egokitzapenak gauzatu dira.

1.2-ALDI BATERAKOA

Aldi baterako barne mugikortasunak destino-aldaketa dakar, hori haren titularrak okupatzen duen arte edo dagokion sistemaren bidez behin betiko betetzen den arte. Borondatezko izaera izango du eta, beti, interesatuak berak eskatu beharko du.

Mugikortasun hori eskatu ahal da lanpostuaren titularrak sei hilabetez edo gehiagoz ez egotea aurreikusten denean; hots, honelako egoeratan: zerbitzu bereziak, zerbitzu-eginkizunak, sindikatu-liberazioak, amatasun baimenak, eszedentziak eta antzekoak edo aldi baterako barne-sustapenak.

2.- EZAUGARRIAK

Barne mugikortasuneko prozesua irekia eta etengabea izango da, hori dela eta, ESIan barne mugikortasunaren bidez beste lanpostu bat bete nahi duten izangaien zerrendak osatu dira.

DEBABARRENA ESIak sistema horren bidez bete daitezkeen lanpostu funtzionalen zerrenda prestatuko du kategoria hauetan: Familia Mediku Fakultatibo Espezialistak, Lehen mailako Arretako Taldeetako Pediatriako Mediku Fakultatibo Espezialistak, Emaginak, Erizainak, Administrariak, Erizain laguntzaileak, Administrari-laguntzaileak eta Zeladoreak. II. ERANSKINA

Izangaien zerrendak urtean behin prestatu eta/edo eguneratuko dira, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan aurreko urteko abenduaren 31ra arte aurkeztu diren eskaera guztiei baremoa aplikatuz.

Behin betiko zerrendaren eta hurrengo edizioaren arteko aldi (urtebete) aurkezten diren eskaera guztiak zerrenda horren amaieran txertatu dira, eskaera aurkeztu den egunaren arabera ordenatuta, eta hurrenkera hori mantenduko dute urteko eguneratzean zerrenda berriak egin arte.

Se proveerán mediante sistema de movilidad interna con carácter definitivo los siguientes puestos:

- Los puestos vacantes que se determinen en cada convocatoria
- Las plazas de nueva creación

Quedan exceptuados aquellos puestos que se reserven para realizar las adecuaciones de salud que se determinen en la comisión correspondiente.

Con carácter previo a esta oferta se realizarán, en su caso, las adecuaciones que procedan en las distintas unidades y servicios.

1.2-TEMPORAL

La movilidad Interna Temporal supone el cambio de destino hasta que éste sea ocupado por su titular o cubierto de forma permanente por el sistema correspondiente. Será de carácter voluntario y su solicitud debe ser siempre a instancia del interesado.

Podrá recurrirse a esta modalidad en aquellas situaciones para las que se prevé una ausencia prolongada igual o superior a 6 meses del titular del puesto, en los siguientes supuestos tales como servicios especiales, comisión de servicios, liberación sindical, permisos maternidad, excedencias y la promoción interna temporal.

2- CARACTERISTICAS

El proceso de Movilidad Interna será abierto y permanente, para lo cual se confeccionarán listas de aspirantes interesados en acceder a otro puesto de trabajo mediante Movilidad Interna en la OSI.

La OSI DEBABARRENA elaborará la relación de puestos funcionales susceptibles de ser cubiertos por este sistema para las categorías de Facultativos Especialistas Médicos de Familia, Facultativos Especialistas Médicos de Pediatría de Equipos de Atención Primaria, Matronas, Enfermería, Administrativos, Auxiliares de enfermería, Auxiliares administrativos y Celadores. ANEXO II

La confección y/o actualización de las listas de aspirantes se realizará una vez al año, en el primer trimestre de cada año, con la aplicación del baremo a todas las solicitudes presentadas hasta el 31 de Diciembre del año anterior.

Todas las solicitudes presentadas en el periodo comprendido entre la lista definitiva y su siguiente edición (1 año) se incorporarán en las últimas posiciones ordenadas por fecha de entrada de la solicitud, permaneciendo en ese orden hasta la elaboración de la nueva lista resultante de la actualización anual.



Behin betiko barne mugikortasunaren ondorioz sortzen diren lanpostu hutsak prozesu berri batean deituko dira ondorioen sistemaren bidez, behin baino ez.

3-EREMUA

Barne mugikortasuneko prozedura DEBABARRENA ESIn lanpostua jabetzan daukaten langile finkoei baino ez zaie aplikatuko, zerbitzu aktiboko egoeran edo parekoan badaude eta kasuan kasu ezartzen diren betekizunak betetzen badituzte.

4-BETEKIZUNAK

Izangaiek derrigor bete beharko dituzte betekizun hauek:

- Plaza-titularra izatea Debarrena Erakunde Sanitario Integratuan.
- Egungo lanpostu funtzionala eta mugikortasunaren xede d(ir)en destino(eta)ko lanpostu funtzionala berdina izatea.
- Beharrezko titulazioa izatea, indarreko araudiaren arabera.
- Euskararen ezagutza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskararen erabilera normalizatzeke martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Zerbitzu Erakunde bakoitzeko Euskara Programan ezarritako irizpideetara egokituko da.
- Espezifiko gisa zehazten diren lanpostuetan, hautagaiek haien espezifikotasunagatik eskatzen den trebakuntza/esperientzia egiaztatu beharko dute. Aurretik, eskatutako ezaugarriak sindikatuen ordezkarietara igorri beharko zaizkie.

5-PROZEDURA

Prozedura hau behin betiko zein aldi baterako barne mugikortasunean aplikatuko da.

5.1. DEIALDIA

Deialdi publikoa egingo da, DEBABARRENA ESIn Zuzendari Gerentearen Ebazpen bidez, eta DEBABARRENA ESIn intranetean eta iragarkitaulan eskegiko da. Ebazpen horretan, zerrendak egiteko langileek hautatzeko aukera izango duten lanpostuen katalogoa zehaztuko da, eta deialdiaren II. Eranskinean jasoko da.

Era berean oraingoan, eta behin baino ez, I. eranskinean zerrendatutako lanpostu zehatzak kategoria bereko langileekin hornitzeko behin betiko barne mugikortasunaren deialdia egiten da.

Las vacantes que se generen como consecuencia de la Movilidad Interna Definitiva se ofertarán mediante el sistema de resultados por una única vez.

3-AMBITO PERSONAL

El procedimiento de Movilidad Interna se aplicará exclusivamente al personal fijo con plaza en propiedad de la OSI DEBABARRENA, que se encuentre en situación de servicio activo o asimilado y que cumpla los requisitos que en su caso se establezcan.

4-REQUISITOS

Los/as aspirantes deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos:

- Ser titular de plaza en la Organización Sanitaria Integrada Debarrena.
- Pertener al mismo puesto funcional que el del destino o destinos objeto de la movilidad.
- Estar en posesión de la titulación necesaria de acuerdo con la normativa vigente.
- El conocimiento del euskera se ajustará a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y en el Programa de Euskera de la Organización de Servicios.
- Para aquellos puestos que se determinen como específicos, los/as aspirantes deberán acreditar la formación/experiencia que por su especificidad así se requiera, previo traslado a la representación sindical de las características requeridas.

5-PROCEDIMIENTO

El presente procedimiento será de aplicación tanto a la movilidad interna definitiva como temporal.

5.1 CONVOCATORIA

Se realizará convocatoria pública mediante resolución del Director Gerente de la OSI DEBABARRENA, que se publicará en la Intranet de la OSI y en el tablón de anuncios. En dicha resolución se detallará el catálogo de puestos a los que podrán optar los trabajadores para la generación de listas, que será recogido en el Anexo II de la convocatoria.

En esta ocasión, y por una única vez, se convocan determinados puestos de trabajo dentro de un mismo puesto funcional, para su provisión por movilidad interna definitiva, según relación de Anexo I.



5.2. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Barne mugikortasuneko prozedura honetan parte hartu nahi dutenek eskaera egin beharko dute 10 egun balioduneko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, berariaz prestatutako eskabide-orria aurkeztuz Debabarrena ESIko pertsonaleko zuzendaritzan.

Eskabidea egiterakoan, izangaiek eurek bete nahi dituzten lanpostuak hautatu beharko dituzte.

5.3 BAREMAZIOA

Eskabideak egiaztatutako merituen arabera barematuko dira.

Oro har lanbide esperientziari eta euskarari buruzko irizpideei dagozkienak hartuko dira kontuan, kategoriaz zehatzeko lekualdaketa orokorretarako azken lehiaketarako ezarri bezala.

Izangaien artean puntuazio-berdinketa izanez gero, Osakidetza azken lekualdaketa lehiaketaren deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera erabakiko da.

Deialdi hau argitaratzen den egunera arte izangaiek aitortuta duten zerbitzu-denbora hartuko da kontuan.

Edonola ere, prestakuntza ataleko baremazioa ahalbidetzen duen tresna gaituko da, etorkizuneko mugikortasuneko prozesuetarako. Hori, aurretik negoziatu beharko da.

5.4. DOKUMENTAZIOA

Deialdia egiten denean hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data igarota daukaten plazak hautatzen dituzten izangaiek dagokien hizkuntza eskakizunaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

Euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentaziorik ez da aurkeztu beharko, baldin eta eskatzaileak dagokion hizkuntza eskakizuna Osakidetza egiaztatu badu, edo Osakidetza egiaztatu badio beste administrazio publiko batek emandako hizkuntza eskakizunaren baliokidetzat.

Egindako zerbitzuak ez dago aurkeztu beharrik, baldin eta Curriculum Vitae aplikazioan dagoeneko agertzen badira. Pertsonaleko Zuzendaritzak ofizioz sartuko ditu eta ezarritako irizpideen arabera barematuko dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztu eta egiaztatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko.

5.2. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Quienes deseen participar en el presente procedimiento de movilidad interna deberán realizar la correspondiente solicitud en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria, en el impreso elaborado al efecto, el cual se registrará en la Dirección de Personal de la OSI DEBABARRENA.

En la solicitud los/las candidatos/as deberán elegir, de entre los puestos ofertados, aquéllos a los que optan.

5.3 BAREMACIÓN

Las solicitudes se baremarán en función de los méritos acreditados.

Se considerarán con carácter general los correspondientes a los criterios de experiencia profesional y euskera, en los términos establecidos para el último concurso de traslados de carácter general de la categoría correspondiente.

Los empates en la puntuación de los/las aspirantes serán resueltos según lo previsto en las bases de la última convocatoria de Concurso de Traslados de Osakidetza.

Se computarán los servicios prestados que los aspirantes tuvieran reconocido hasta la fecha de publicación de la presente convocatoria.

En todo caso, se habilitará la herramienta que posibilite la baremación del apartado de formación para futuros procesos de movilidad, que deberá ser objeto de negociación previa.

5.4 DOCUMENTACIÓN

El aspirante que opte a puestos con fecha de preceptividad vencida al momento de esta convocatoria, aportará fotocopia compulsada del perfil lingüístico acreditado.

Estarán exentos de aportar dicha documentación los participantes que tuvieran ya reconocida la acreditación del correspondiente perfil lingüístico o tengan acreditada la equivalencia del perfil lingüístico emitido por otra Administración Pública, o por parte de Osakidetza-SVS.

No será precisa la presentación de los servicios prestados que ya consten en la aplicación de Curriculum Vitae. Estos se incorporarán de oficio desde la Dirección de Personal y serán baremados conforme a los criterios establecidos.

En ningún caso podrán valorarse los méritos que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.



Eskabidean edo dokumentazioan datu faltsurik aurkituz gero, ezereztatu egingo da eskaera, bestelako neurriak hartzeari uko egin gabe.

5.5 BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

Eskaeren baremazioa egin ondoren, prozesuaren behin-behineko emaitza argitaratuko da iragarki-taulan eta DEBABARRENA ESIaren intranetean, eta erreklamazioak aurkeztu 7 egun naturaleko epea ezarriko da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.6. AURRETIK UKO EGITEA

Onartu egingo da eskabideari edo hautatutako destinoetakoren bati uko egitea, eskabideak aurkezteko epean, baita behin betiko emaitza argitaratu baino lehen aurkeztutakoak ere. Azken kasu horretan Pertsonaleko Zuzendaritzaren aurrean behar bezala erregistratutako idazkia aurkeztu beharko da, berariazko ukoa adieraziz.

5.7 BEHIN BETIKO ZERRENDA

Aurkeztutako erreklamazioak aztertutakoan, behin betiko zerrenda egingo da eta lanpostuen atxikipena onartuko da DEBABARRENA ESIko Zuzendari Geretearen ebazpen bidez, non atxikipenaren behin betiko edo behin behineko izaera adieraziko den. Zerrenda iragarki-taulan eta DEBABARRENA ESIaren intranetean argitaratuko da.

5.8 BEHIN BETIKO UKOA

5 egun balioduneko epea egongo da behin betiko emandako lanpostuari uko egiteko. Epe hori igaro ondoren langile batek mugikortasun-eskaintza onartzen ez badu, dagokion zerrendatik kenduko da, eta, urtebete igaro arte, ezin izango du parte hartu mugikortasuneko beste prozesu batean zerbitzu edota unitate berean.

5.9. LANEAN HASTEA

Eskuratutako lanpostuan berehala hasi beharko da, baldin eta esleipenduna aldi baterako barne mugikortasunean lanean ari bada.

Aldi baterako barne sustapenean lanpostu bat betetzen ari bada, eta behin betiko mugikortasunean lanpostua lortu badu, esleipendunak behin bakarrik erabaki ahal izango du lan berrian berehala hasiko den edo egoera hori amaitu ondoren.

La consignación de datos falsos en la solicitud, así como en la documentación que se aporte o valide, se sancionará con la anulación de la solicitud, sin perjuicio de la adopción de otras medidas que se consideren oportunas.

5.5 LISTA PROVISIONAL

Tras la baremación de las solicitudes, se publicará el resultado provisional del proceso en los tablonos de anuncios y en la Intranet de la OSI DEBABARRENA, y se establecerá un plazo de presentación de reclamaciones de 7 días naturales desde el día siguiente a su publicación.

5.6 RENUNCIA PREVIA

Se admitirá las renuncias a la solicitud o a alguno de los destinos elegidos, durante el plazo de presentación de solicitudes, así como con carácter previo a la publicación del resultado definitivo. En este último caso deberá presentarse escrito debidamente registrado ante la Dirección de personal en el que conste la renuncia expresa.

5.7 LISTA DEFINITIVA

Estudiadas las reclamaciones presentadas, se elaborará el listado definitivo y se aprobará la adscripción al puesto mediante resolución de la Dirección Gerencia de OSI DEBABARRENA el cual será publicado en los tablonos de anuncios y en la Intranet de la OSI DEBABARRENA, haciendo constar el carácter definitivo o temporal de la misma.

5.8 RENUNCIA DEFINITIVA

Se concederá un plazo de 5 días hábiles para renunciar a la plaza definitivamente concedida. La no aceptación de la movilidad, transcurrido dicho plazo, supondrá la imposibilidad de volver a participar en otro proceso de movilidad en el mismo servicio o unidad hasta transcurrido un año.

5.9 INCORPORACION

La incorporación al puesto obtenido se realizará inmediatamente en el supuesto de que el/la adjudicatario/a se encuentre desempeñando un puesto en Movilidad Interna Temporal.

En el supuesto de encontrarse desempeñando un puesto en Promoción Interna Temporal, y resultar adjudicatario de destino en movilidad definitiva, el interesado podrá optar por una única vez si su incorporación a ese puesto lo realizará de forma inmediata a la oferta o cuando finalice su promoción.



Profesionala ondorengo egoeraren batean egongo balitz: -zerbitzu eginkizunetan, sindikatu-liberazioan, zerbitzu bereziagatiko eszedentzian, behin-behineko barne-sustapenean, kategoria beheagoko edo goragoko egitekoetan eta lan-harremana etetea askatasuna gabetzeagatik- profesionalak esleitutako behin betiko mugikortasuna onar dezake lanpostu horretan lanean hasi gabe, zegoen lan egoera bera mantenduz eta esleipena erreserban mantenduz.

Salbuesenez, behar bezala arrazoitutako zerbitzu-beharrengatik ere atzeratu ahal izango da lanpostu berrian hastea. Egoera horiek izanez gero, horien berri eman beharko zaie langileen ordezkarietara.

Behin betiko atxikipena eginda, eta iraunkortasuna bermatu eta zerbitzuetan lan-taldeak etengabe aldatu ez daitezela, esleipendunek urtebetez, gutxienez, egon beharko dute lanpostu berrian, Erakundeko barne-mugikortasuneko prozesu berri batean parte hartu aurretik.

Barne mugikortasuna aldi baterakoa bada, esleipendunak gutxienez urtebete eman beharko du destino berrian, baldin eta aurretik mugiarazten ez badute titularra lanpostura itzultzen delako edo esleipena eragin zuten arrazoiak desagertzen direlako.

Mugikortasun-prozedura honen bidez lanpostu berri bat eskuratzeak ez dio inola ere eragingo izangaiaren lotura estatutario, funtzional edo lanekoaren izaera juridikoari.

Lanpostu berrien esleipendunek bere egingo dituzte lanpostu berriaren baldintzak, eta horien araupean lan egingo dute. Baldintza horien artean, berriaz daude ordutegiari, jardunaldiari eta ordainsariei dagozkienak; eta horrek esan nahi du onartu egiten dela ordura arte betetako destinoko lan-baldintzekiko izan litekeen aldaketa.

Barne mugikortasunez beste unitate edo zerbitzu batean hasten den profesionalak bertako barne-arauak bete beharko ditu. Jatorrizko unitatean edo zerbitzuan eskatutako baimen, lizentzia edo opor egun guztiak, besteak beste, ezetzatuko dira. Izan ere, unitate edo zerbitzu berriak ezin du alde aurretik bermatu horiek hartzeko aukera egongo denik. Halaber, barne mugikortasunez lanpostu bat eskuratu eta, edozein arrazoi dela eta, bere jatorrizko unitatean edo zerbitzuan aplikatu zain dauden aldaketak egin dituenak horiek aplikatuta izan beharko ditu esleitutako destinoan lanean hasten den ulean.

En el supuesto de que el profesional se encuentre en situación de: comisión de servicios, liberación sindical, situación por servicios especiales, promoción interna temporal, funciones de inferior/superior categoría y suspensión de la relación laboral por motivo de privación de libertad, el profesional puede aceptar la adjudicación de movilidad definitiva sin necesidad de incorporarse a la plaza asignada, permaneciendo el interesado en la situación laboral que estuviere y manteniendo en reserva dicha adjudicación.

Excepcionalmente, la incorporación podrá también aplazarse por necesidades de servicio debidamente motivadas. Estas situaciones, de producirse, serán puestas en conocimiento de la representación sindical.

Efectuada la adscripción definitiva, y como medida garante de continuidad para preservar a los servicios de cambios continuos en los equipos de trabajo, los/as adjudicatarios/as deberán permanecer en el nuevo destino al menos un año antes de poder participar en un nuevo proceso de movilidad interna dentro de la Organización.

En caso de tratarse de Movilidad Interna Temporal, el adjudicatario deberá permanecer en el nuevo destino al menos 1 año a no ser que el adjudicatario sea desplazado con anterioridad por reingreso del titular o desaparición de las causas que motivaron su asignación.

El acceso a un nuevo puesto a través de este procedimiento de movilidad no supondrá modificación alguna en la naturaleza jurídica de la relación estatutaria, funcional o laboral que ostente el/la concursante.

Los/las adjudicatarios/as de los puestos pasarán a regirse, tras su toma de posesión, por las condiciones del nuevo puesto de trabajo. Entre dichas condiciones se encuentran expresamente las de horario, jornada y retribuciones, suponiendo la aceptación de la modificación de las condiciones de trabajo que pudieran existir respecto del puesto hasta entonces desempeñado.

El personal que acceda a otra Unidad o Servicio por Movilidad Interna pasará a asumir las normas internas operantes en éste. Todos los permisos, licencias, vacaciones, etc., solicitados en la Unidad o Servicio de procedencia quedarán anulados, no pudiendo ser garantizado a priori su disfrute en los mismos términos en su nueva Unidad o Servicio. Asimismo, quien acceda a un puesto mediante Movilidad Interna y tenga pendientes de resolver cambios que por diferentes motivos haya podido realizar en su Unidad o Servicio de procedencia, deberá tenerlos resueltos al momento de su incorporación al destino adjudicado.



6-MUGIKORTASUN BATZORDEA

Mugikortasun prozesuaren jarraipena egiteko Batzorde Paritario bat osatuko da akordio hau sinatu dutenez osatua. Batzordea hiru hiletik behin bilduko da.

7-ALDI BATERAKO XEDAPENA

Behin betiko atxikipen izaera emango zaie plantilako pertsonal finkoak 2011ko abenduaren 31n betetzen zituzten lanpostuei; salbuespena izango dira titularrek erreserbatutako lanpostuen ordezkariak.

8-XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Prozedura honek indargabetu egingo du ESIan barne-mugikortasun horizontalaren arloan izan daitekeen beste edozein arau.

Ebazpen honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, kontuan hartuko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2015eko ekainaren 10eko Erabakiak xedatzen duena (Erabaki horren bidez, Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak aldi baterako edo behin betiko barne-mugikortasun bidez hornitzeko irizpide orokorrak onartzen dira).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoari jarraiki.

6-COMISIÓN DE MOVILIDAD

Se constituirá una comisión paritaria integrada por los firmantes del presente acuerdo para el seguimiento del proceso de movilidad derivado de este acuerdo, la cual se reunirá trimestralmente.

7-DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Tendrán la consideración de adscripción definitiva, los puestos funcionales que vinieran siendo ocupados por el personal fijo de plantilla a 31 de diciembre de 2011, excepto los desempeñados por sustitución del titular del puesto, cuya titularidad corresponde a éste.

8-DISPOSICIÓN DEROGATORIA

El presente procedimiento supondrá la derogación de cualquier otra regulación de movilidad horizontal interna que pudiera existir en el ámbito de la OSI.

En lo no dispuesto en el presente resolución se estará a lo dispuesto en el Acuerdo de 10 de Junio de 2015, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por el que se aprueban los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna, temporal o definitiva, en el conjunto de organizaciones de servicio del Ente Público.

Contra lo acordado en la presente Resolución podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación, todo ello de conformidad con las previsiones contenidas en la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Mendaro, 2016ko maiatzaren 18a

Mendaro, 18 de mayo de 2016

DEBABARRENA ERAKUNDE SANITARIOKO INTEGRATUAKO ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE DE LA O.S.I. BAJO DEBA



IZ./Fdo.: EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD